

Euskaltzainburua, euskaltzain osoak, euskaltzain ohorezkoak, ohorezko euskaltzain gaiak, euskaltzain urgazleak, Euskaltzaindikoko langileak, eta laguntzen gaituzuenak. Agur t'ardi.

Lehenengo esan behar dut, oso pozik aurkitzen naizela sekula ez esperotako aipamen honengatik. Azken batean, Euskaltzaindiaren izendapena, erakundean parte hartze berri baterako deia bezala hartzen dut eta horretarako, zuen esanetara nagoela jakin erazten dizuet.

### **Euskararen irakaskuntzaren zenbait erronka.**

Euskaltzain urgazlea aspalditik izan naizen arren ez naiz ohiko hizkuntzalari teorikoen edo analitikoen lana egiten aritu, nirea, hizkuntza aplikatuaren esparruan izan da, euskara irakaste lanean, bere ekoizpenen analisisian eta, apurka-apurka nire bizitzan Euskaltzaindiak eskatu dizkidan zereginei erantzuten saiatu naizela uste dut. Hizkuntzaren eta hezkuntzaren soziologian ibili naiz eta esparru horietan euskarak bere inguruko egoerarekin duen lokera aztertu izan dut.

Euskararen ikaskuntzan, familiako kulturak duen garrantzia aspaldiko denboretan frogatua izan da. Familiako kultura deritzaio, familian bilakatzen diren hizkuntza, baloreak, jarrerak, interesak, motibazioak, portaerak, esparru eta giro horretan sortu eta hezi direnei, esperientzia horren bitartez, beren nortasuna eraikitzeke jasotzen dituzten bitartekoei.

Euskara irakasteko garaian, ez da nahikoa euskara ongi jakitea, egoki programatzea, didaktika erraz batez baliatzea, ba dira beste zenbait elementu, irakats prozesu horretan eragina dutenak, etxeko ohiturak ikaste prozesuarekin agertzen duten zerikusia, besteak beste. Zerbait aipatzekotan, gurasoen partaidetza, beren seme-alaben zuzeneko nahiz zeharkako ikas ekimenekin. Zuzenekoak, adibidez, etxeko lanetan seme alabei laguntzea, zeharkakoek adibidez, seme alabekin irakurtzeko ohiturak hartzea, irakurtze saioak komentatuz, haurrak irakurtzeko ohituran sartu arte. Irakurtzearen ohituraren indarra eragile bihurtzen da ikaslearengan, eta ikas prozesuen aurrean ikaslea zenbat eta erosoago aurkitu, orduan eta gustuago sentituko da ikaste prozesu osoan eta baita euskararen ikaskuntzan ere.

Euskara unibertsalizatzeak, hau da, populazio gazte orori eskaintzeak, euskara erraz eta egoki erakustez gain, aipatu ditudan elementu hauek

zaintzea eta ahal den neurrian gurasoekin lantzea ere eskatzen du. Hau eskolako kulturaren bidez egiten da, eta oraindik zenbait ikastetxetan hutsunea ikus daiteke. Oinarrizko mailetan irakasteko erak, bizitzarako esperientzi baikorrak edo aurkakoak eragin ditzake. Beraz, bai familiako kulturak, bai eskolakoak, edo biak batera, euskararen esperientzia egokia edo ez egokia bilaka dezakete.

### **Euskaltzaindiaz oroimen batzuk.**

Euskaltzaindia, ezagutzen dudanetik, euskararen munduan garrantzi handiko pausoak eman ditu, garaiko beharrak eskatuta gogoratzen dutan lehenengo ekimena eskolako hiztegia egiten hastea izan zen.

Euskararen plazaratze lanean lehenengotako bultzagilea izan da, erakunde gisara, neure ustez lehenengoa, gero etorri ziren besteak.

Euskaltzaindiak bide berri bat urratu zuen, lanerako egitura osoa eraiki, antolatu eta aurrera atera zuen, garapen sendoa eta zabala sortuz. Momentu batean sartu zen gazte laiko eta trebe talde bati esker eman zen aldaketa hura.

Ahaztu ezin dudana, Euskaltzaindiak egin zuen Euskara Batuaren apustua da, eta honen ildotik Euskararen irakasleen prestakuntza bermatzeko ekimenak, Eusko Jaurlaritzaren babesean utzi zituen arte.

Euskara Batua funtsezko tresna izan zen Euskara zegoen leizetik ateratzeko. Batuaren aukera egin genuen, eta esan beharrekoa da, erabaki horren ondorioak ere ez zirela denak atseginak izan. Hala ere, guztion artean lortu zen aurrera ateratzea, *Arrazoi biologikoaren* indarra ez zen alperrik galdu.

Garai batean batua eta poliki erabiltzen genuen, laneko harreman normalean zenbait lankide eta ikasleekin komunikatzeko bide bakarra zelako. Horrek eraman gintuen, ni eta ni bezalako asko, jatorrizko euskara maiz saihestea. Gogoratzen naiz, Fakultatean sartu nintzenean, hiru lagun bakarrik nituen nire erara hitz egiteko aproposak nituenak. Gozamen bat zen haiekin solasean jardutea, batek ezagutzen zituen zenbait hitza besteari agertzea, edo besteak agertzen zituenak jasotzea, ze testuingurutan erabiltzen ziren, e.a., beti hikaz egiten genuen, eta hitz egitearen atseginagatik, ongi sentitzen ginelako egiten genuen.

Gaur egunean, Euskara Batua hizkuntza txukun eta gero eta aberatsago bilakatzen ari dela ere aitortu nahi dut. 60ko hamarkadatik orainera eman diren pausoak oso garrantzizkoak izan dira, eta denboraren ikuspuntutik ekoizpen mardulak konstata daitezke.

Oso gustura aurkitu izan naiz erakunde honetan. Euskaltzain urgazle gisa, nire bizitzan zehar ekimen puntualetan bakarrik jardun banaiz ere, Euskaltzaindia niretzat oso garrantzizkoa izan da.

Batetik, lehenengo momentutik, Carlos Santamaría, Luis Villasante, Angel Irigaray, Juan San Martinek arreta bereziarekin zenbait berri jakinarazten zizkidatelako. Bestetik, Euskaltzaindiko kudeaketako eta administrazioko Rosa Mari, Juanjo, José Luis, Rexu, Rikardo eta Lutxirengandik jasotako laguntza eta harrera niretzat esanguratsuak izan direlako. Eta bi taldeengandik estimatua eta hurbilekoa sentitu naizelako. Ondorioz, beti bertakoa kontsideratu izan naiz.

Behin, gogoan dut, ezagun batzuk, egun pasa egitera konbidatu ninduten, D. Manuel Lekuonarekin antolatu zuten, Zangoza eta Leireko elizetako arte bereziak ezagutzera. Itzultzerakoan D. Manuelek, Irurtzongo “biahizpe”tatik pasatzerakoan esan zigun: pasatzen ari garen bide honetaz kontatuko dizuet zerbait. Leku honen izena ez da “dos hermanas”, bi ahizpe, baizik bihaitzpe, eta bere esan nahia, hor goian bi haitz daudela, eta hemen barrenean bidea, bihaitzpean dagoena, beraz gaztelaniazko “dos hermanas” ez da itzulpen egokia.

Zorrrak kitatu beharrak, gertutik bizi izan ditugun zenbait euskaltzain eta bertako langile, dakartzat gogora. Zenbat estimatzen ditugun esan baino lehen joan zaizkigulako.

Amaitu baino lehen nire agurra eman nahi diet, nirekin batera ohore hau jasoko duzuenoi, gehienak ezagutzen zaituztet eta pribilegio bat da niretzat zuen artean egotea.

Eta bukatzeko, Euskaltzaindiari eskerrak berarengandik jaso dudan guztiagatik nerekiko izan duen eman didan guztiagatik, eta bereziki gaur esker mila eman nahi dizkiot, bere batzarkideen bidez, ohorezko euskaltzain izendatu nauelako.

Pakita Arregi